



# Euskal interpreteen diagnostikoa 2024

INTERPRETEEN LANTALDEA

KOORDINAZIOA:  
CLAUDIA TORRALBA RUBINOS

## **AURKIBIDEA**

TXOSTENAREN HELBURUA

METODOLOGIA

EMAITZAK

INTERPRETEEN PROFILA

AUTONOMOENTZAKO GALDERAK

Lan-arloa

Azpiegitura

Tarifak

Hizkuntza-norabidea

Dokumentazioa aurretiaz jasotzea

HIRUGARRENEN KONTURAKO LANGILEENTZAKO GALDERAK

Lan-baldintzak

Azpiegitura

Hizkuntza-norabidea

Dokumentazioa aurretiaz jasotzea

ONDORIOAK

Eguno euskal interpreteen profila

Interprete autonomoak

Hirugarrenen konturako interpreteak

## TXOSTENAREN HELBURUA

Txosten honek euskal interpreteen diagnostikoa egiteko baliagarri izan nahi du. Hala ere, helburua ez da izan, inola ere, interpreteen errolda exhaustibo bat egitea.

Metodologia-atalean azalduko den bezala, interpreteek borondatez erantzundako galdetegi batean oinarrituta dago txostena, eta 2024an euskara lan-hizkuntza gisa duten interpreteak<sup>1</sup> zenbat eta nolakoak diren erakutsi nahi du, hainbat alderdiri erreparatuta: generoa, adina, prestakuntza, lantokia, lan-erregimena... Gainera, egungo euskal interpreteen profila irudikatzen laguntzeaz gain, euskal interpreteek beren lan-baldintzei buruz dituzten pertzepzioei heldu nahi die, egon litezkeen beharrak identifikatu, eta, beharrezkoa bada, lan-baldintza horiek hobetzen eta arazoei aurre egiten laguntzeko.

## METODOLOGIA

Txosten hau galdetegi batean oinarrituta dago, eta galdetegi horrek bi zati ditu: lehenengoan, derrigor erantzun beharreko 12 galdera daude. 13. galdera irekia eta hautazkoa da, profilari buruz zerbait gehitu nahiko balute ere. Galdera horiek interpreteen profila irudikatzeko beharrezkoak diren hainbat gairekin daude lotuta:

- Generoa
- Adina
- Jaiolekua
- Lan-eremu geografikoa
- Prestakuntza
- Lan-esperientzia
- Interpretazioa eta beste lan batzuk uztartzea

14. galderan autonomoak ala hirugarrenen konturako langileak diren zehazteko eskatzen zaie galdetegia bete dutenei, eta, hortik aurrera, antzekoak diren bi bloketan banatzen da galdetegia, bata norberaren kontura lan egiten duten interpreteek betetzeko eta bestea hirugarrenen kontura lan egiten dutenentzat. Guztira, 42 galdera daude bloke bakoitzean. Norberaren kontura lan egiten duten interpreteei gai hauen inguruan galdetzen zaie espresuki:

- Lan-arloa
- Azpiegitura
- Kabina itsua egiteko beharra
- Teknikarien presentzia
- Urrutiko (onlineko) interpretazioa
- Grabazioak interneten jartzea
- Esan osteko interpretazioa
- Tarifak
- Interpreteen kopurua
- Hizkuntza-norabidea
- Dokumentazioa aurretiaz jasotzea

<sup>1</sup> Txosten eta galdetegi honetan ez dira kontuan hartu zeinu-hizkuntzako interpreteak.

Hirugarrenen konturako langileei, aldiz, beste hauei buruz:

- Erakunde enplegatzailea
- Lanpostua, kategoria eta zereginak
- Lan-karga
- Lan-baldintzak
- Prestakuntza
- Teknikarien presentzia
- Azpiegitura
- Urrutiko (onlineko) interpretazioa
- Grabazioak interneten jartzea
- Esan osteko interpretazioa
- Itzulpen eta interpretazio automatikoaren presentzia
- Interpreteen kopurua
- Hizkuntza-norabidea
- Dokumentazioa aurretiaz jasotzea
- Lan-ordutegitik kanpo lan egindako orduak

Bloke bakoitzean erantzun beharreko 43 galderetatik 29 derrigor erantzun beharrekoak dira, eta 13 hautazkoak. Hautazkoak bi motatakoak izan daitezke: aurreko galderan emandako erantzunaren arabera erantzun beharrekoak edo irekiak, gai bakoitzari lotutako azken galderaren ondoren.

Galdetegiaren diseinuan 5 interpreteko lan-talde bat aritu da lanean: horietatik 3 hirugarrenen konturako interpreteak dira, eta beste biak autonomoak.

Galdetegia diseinatzeko, hainbat urrats eman dira. Lehenik, EIZIEko interpreteei eskatu zitzaion beren eguneroko lan-baldintzak, arazoak eta kezkek beren hitzez Drive dokumentu partekatu batean deskribatzeko. Bi helbururekin erabaki zen interpreteek egindako deskribapenak oinarritzat hartzea: batetik, hutsetik hasi beharrean, interpreteen kezka eta auzi errealetatik abiatzeko; eta, bestetik, autonomoentzat eta hirugarrenen konturako langileentzat, bientzat, pertinenteak izango ziren galderak identifikatzeko.

Horri helduta, diagnostikoaz arduratu den lan-taldeak lehen galdetegi-proposamen bat egin zuen. Galdetegi-proposamenari ekarpenak egiteko bi aste epea eman zen, baina ez zen ekarpenik jaso. Beraz, lan-taldeak egindako proposamena onartutzat eman eta horrelaxe zabaldu zen. Galdetegia zabalik egon zen 2024ko ekainaren 5etik uztailaren 1era bitartean.

Galdetegia eta diagnostikoa EIZIEk garatu eta landu dituen arren, elkarteko bazkide ez diren interpreteengana ere iristea izan da asmoa. Horregatik, galdetegiaren berri eman da, elkartearen bitartez ez ezik, *31 eskutik* blogean eta *ItzuL* posta-zerrendan ere. Galdetegia Google Forms bidez zabaldu da, eta, guztira, 43 erantzun jaso dira (norberaren konturako interpreteen 16 erantzun eta hirugarrenen konturako 27). Galdetegia anonimoki betetzeko aukera eman da.

Euskara lan hizkuntza duten interpreteen erregistrorik ez dagoenez, ezin dugu zehatz jakin zenbateraino den kolektibo osoaren erakusgarri, baina euskal interpretazioaz dugun ezagutzak eta lor daitezkeen datu urriak kontuan hartuta<sup>2</sup> lagin esanguratsua dela esango genuke.

---


<sup>2</sup> EIZIEren webgunean bilatuta, 50 profesional agertzen dira interpretazio lanetan aritzeko prest.

## EMAITZAK

Atal honetan, galdera bakoitzari emandako erantzun zehatzak jasoko dira. Derrigor erantzun beharreko galderak izartxo (\*) daukatenak dira.


### INTERPRETEEN PROFILA

#### 1. Generoa \*




Grafikoan ikus daitekeen bezala, galdetegia erantzun duten interpreteen % 69,8 emakumeak dira (43tik 30) eta % 30,2a gizonak (43tik 13). "Ez-bitarra" aukera ez du inork hautatu.

#### 2. Adina \*



Galdetegia erantzun duten interpreteen batez besteko adina 45,79 urtekoa da. Interpreterik gazteenak 22 urte ditu, eta nagusienak, aldiz, 68. Interprete gehienak (43tik 12, hau da, % 28) 40-49 adin-tartean kokatzen dira.

#### 3. Jaiolekua \*




Galdetegia erantzun duten interprete gehienak (43tik 38, % 95,4) EAEn jaiotakoak dira. Zehazki, % 51,2 (hau da, 43tik 22) Bizkaian jaiotakoak dira, eta atzetik datoz Gipuzkoan jaiotakoak % 37,2 (hau da, 43tik 16) eta Araban jaiotakoak % 7 (hau da, 43tik 3). Horrez gain, Lapurdin eta Nafarroan jaiotako interprete bana dago (% 2, hurrenez hurren).

#### 4. Aurreko galderan "beste bat" aukeratu baduzu, adierazi hemen non.


Ez du inork aukera hori hautatu.

#### 5. Euskal Herriko zein lurraldetan edo zein lurraldetako erakunde/enpresentzat egiten duzu lan? (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Lapurdi, Behe Nafarroa, Zuberoa, denak?) \*



Galdera honetan lurralde bat baino gehiago markatzeko aukera eman zitzaienten interpreteei. Guztira, 43tik 23k (% 53,49) markatu zuten Gipuzkoa, 22k (% 51,16) Bizkaia, 19k (% 44,18) Araba, 3k (% 7) Nafarroa, 2k (% 4,65) Behe Nafarroa eta beste 2k (% 4,65) denak. Zuberoa ez zuen inork erantzun. Nabaria da, beraz, Hego Euskal Herriaren, eta, bereziki, EAEn nagusitasuna.


#### 6. Zein da zure ikasketa-mailarik altuena? \*



Galdetegiari erantzun dioten interprete gehienek (43tik 19k, hau da, % 43,44k) unibertsitateko ikasketak (izan lizentziatura, diplomatura edo gradua) eta graduondokoa dute.

Datuak zehatzago aztertuta, galdetegiari erantzun dioten 43 interpreteetatik 1ek (% 2,32) unibertsitateko diplomatura du; beste 1ek (% 2,32) "unibertsitate-ikasketak" gehiago zehaztu gabe; 5ek (% 11,63) graduko ikasketak, 15ek (% 34,88) lizentziatura, 2k graduondokoa (% 4,65), 17k (% 39,53) masterra eta 2k (% 4,65) doktoretza.

### 7. Itzulpengintza eta Interpretazioko lizentziatura edo gradua ikasia zara? \*




Inkesta erantzun duten interpreteen % 53,5ek (hau da, 43tik 23k) itzulpengintzaren eta interpretazioaren arloko gradua edo lizentziatura dute. Ondorioz, gainerakoek, % 46,5a (43tik 20k), beste arlo batzuetako ikasketak daukate.

Puntu honetan, kontuan hartu behar da 2000. urtean hasi zirela UPV/EHUn Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasketak (lizentziatura lehendabizi, eta gradua ondoren), euskara lan-hizkuntzat hartzen duten bakarrak, eta gaur egun interprete jarduten duten zenbait ordurako lanean ari zirela.

### 8. Baduzu graduondoko prestakuntzarik? Erantzuna baiezkoa bada, zein? \*

Graduondoko prestakuntza



Galdetegiari erantzun duten 43 interpreteetatik, 27k (% 63) graduondoko prestakuntza daukate; 16k (% 37ak), aldiz, ez.


Graduondoko zein prestakuntza zehatz duten galdetuta, honako formakuntza hauek aipatu dituzte, eta batzuk errepikatu egin dira:

- *Itzulpengintzako masterra*
- *Terminologiako oinarriei buruzko graduondokoa*
- *Interpretazio Masterra (La Laguna)*
- *Itzulpengintza eta Teknologia graduondokoa*
- *Ikus-entzunezko itzulpengintzan masterra*
- *Máster SIC en Tecnologías de Traducción (AulaSIC)*
- *Tradumática, Traducción y Nuevas Tecnologías masterra*
- *Euskal Filologiako doktoretza*
- *Gizonen eta Emakumeen Berdintasun masterra*
- *Itzulpengintzako master bat (Salamanca Unibertsitatea)*
- *Itzulpengintza eta Teknologia (UEU-EHU)*
- *Euskal Filologia eta Hizkuntzalaritzako Masterra*
- *PgDip in Translating and Conference Interpreting (Heriot Watt University, Edinburgh)*
- *Irakasle izateko masterra*
- *HIZNET*
- *Konferentzia-interpretazioan masterra*
- *Máster Universitario en Traducción y Nuevas Tecnologías*
- *Master of Science in Interpreting (Heriot Watt University)*
- *Master en Terminología (Universitat Pompeu Fabra)*

Goiko zerrendan ikus daitekeenez, graduondoko hainbat programa aipatzen dira, baina azpimarratu behar da gehienbat honako espezializazio-arlo hauetan sailka daitezkeenak aipatzen direla:

- Interpretazioa (hainbat unibertsitatetako masterrak).
- Itzulpena, enfasia teknologian eta terminologian jarrita.
- Diziplina akademiko anitzak, hala nola filologia eta genero-berdintasunari buruzko ikasketak.


**9. Uste duzu behar besteko prestakuntza arautu eta ez-arautua jaso duzula? \***



Prestakuntza arautu eta ez-arautu nahikoa jaso dutela uste duten galdetuta, 43 interpreteetatik 22k (% 51,2) erantzun dute ezetz, eta 21ek (% 48,8k), ostera, baietz.



### 10. Zenbat denborako lan-esperientzia daukazu? \*




Goiko grafikoan ikusten den bezala, aniztasuna dago esperientziari dagokionez. Hala ere, interpreteen erdiek baino gehiagok (43tik 26, hau da, % 60,46) 10 urtetik gorako esperientzia daukate, eta horietatik 9k (10 urtetik gorako esperientzia dutenen % 34,61) 30 urtetik gorakoa.

Grafikoaren beste muturrak erakusten du 10 urte baino gutxiagoko esperientzia duten 16 interprete daudela (% 37,2). Horietatik 8k (10 urtetik beherako esperientzia dutenen % 50) 7-8 urteko esperientzia dute.

Galdetegiari erantzun dion interpreteetako batek «ordu asko» erantzun du, eta, beraz, ezin izan da erantzun hori kontuan hartu emaitzak urtetan kontabilizatzeko. Edonola ere, aipatzekoa da galderan ez dela zehaztu zein magnitudetan erantzun behar zen.

### 11. Zure lanaren zein zati hartzen du interpretazioak? \*



Goiko grafikoan ikusten denez, galdetegiari erantzun dioten interpreteen ia erdien kasuan (% 46,5, hau da, 43tik 20ren kasuan) interpretazioak beren lanaren % 25 baino gutxiago hartzen du. % 27,9ren kasuan (hau da, 43tik 12ren kasuan), aldiz, % 25 eta % 50 artean. Orobat, horrek erakusten du galdetegiari erantzun dioten interpreteen ia hiru laurdenen kasuan (% 74,4 edo 43tik 32ren kasuan), interpretazioak beren lanaren erdia edo gutxiago hartzen duela. Beste muturrean, galdetegiari erantzun dioten interpreteen % 14ren kasuan (43tik 6k), interpretazioak beren lanaldiaren % 75 eta % 100 artean hartzen du.

## 12. Beste zein lanekin uztartzen duzu? (bat edo bat baino gehiago)? \*

- Itzulpena
- Zuzenketa
- Azpitolazioa
- Bikoizketa
- Lokalizazioa
- Irakaskuntza
- Beste batzuk




Grafikoan argi ikusten den bezala, interprete gehienek (43tik 36k, % 83,72) itzulpenarekin uztartzen dute interpretazio-lana. Bigarren jarduerarik ohikoena zuzenketa da; galdetegia erantzun duten 43 interpreteetatik 23k egiten baitute (% 53,49). Hirugarren posizioan irakaskuntza dago, 6 interpretek (% 13,95) uztartzen baitute interpretazio-lanarekin. Edonola ere, beste hainbat jarduera ere aipatu dira, goiko grafikoan ikus daitekeen bezala.

## 13. Zerbait gehitu nahiko zenuke?

Galdera honetan, honako ekarpen hauek jaso dira:

- *Itzulpengintza gradutik kanpo oso zaila da prestakuntza jasotzea.*
- *EHko merkatuan ikasturte honetan hasi naiz.*
- *Administrazioan egiten dut lan, beraz, hirugarrenen kontura ari naiz, baina enpresetan dihardutenek baino baldintza hobekin, esango nuke.*
- *Hurrengo galderan biak markatu nahi nituzke, baina ezin*
- *Oso interpretazio gutxi egiten dira urtean Nafarroako auzitegietan, soilik 5-7 inguru.*
- *Ikus-entzunezko komunikazioa ikasi nuen eta kasualitatez amaitu nuen itzulpengintzan eta interpretazioan lanean. Prestakuntza formalik gabe hasi nintzen eta horregatik erabaki nuen lana utzi eta masterra ikastea.*
- *Euskara teknikari*
- *Itultzaile-interprete lanpostu bat betetzen dut Administrazioan*

#### 14. Autonomoa zara ala hirugarrenen konturako langilea? \*



Grafikoan argi ikus daitekeen bezala, gehiago dira galdetegi honi erantzun dioten hirugarrenen konturako langileak (43tik 27, hau da, % 62,8) norberaren konturakoak baino (43tik 16, % 37,2a).


## AUTONOMOENTZAKO GALDERAK

### Lan-arloa

1. Zein arlotan egiten duzu lan? Aukeratu bat edo bat baino gehiago, eta adierazi zure lanaren zein ehuneko hartzen duen bakoitzak, gutxi gorabehera. \*

- Udalak
- Erakunde publikoak
- Konferentzia pribatuak
- Elkarteen bilerak
- Eskolak
- Beste batzuk

Jasotako erantzunengatik, ez da posible izan arlo bakoitzak duen pisuaren ehunekoa zehaztea. Hala ere, honela geratzen da, jasotako erantzunen arabera, lan-arloen arabera banaketa:



Grafikoan ikus daitekeen bezala, interprete autonomo gehienek udaletan, erakunde publikoetan eta konferentzia pribatuetan egiten dute lan batez ere (16tik 12k, 13k eta 11k, hurrenez hurren, hau da, % 75ek, % 82,25ek eta % 68,75ek). Horien atzetik datoz elkarteen bilerak (16tik 8k, hau da, % 50ek) eta eskolak (16tik 5ek, hau da, % 31,25ek).

Interprete batek (% 6,25ek), gainera, kirol-arloko prentsaurrekoak eta alderdi politikoentzako lanak ere aipatu ditu.


Edonola ere, hauek izan dira jasota erantzun zehatzak:

Galdera honetan, honako erantzun hauek jaso dira:

- *Udalak; erakunde publikoak; konferentzia pribatuak, elkarteen bilerak; eskolak, prentsaurrekoak (kirola)*
- *Udalak %40, Erakunde publikoak %40, Konferentzia pribatuak eta beste %20*
- *Udalak, Erakunde publikoak, pribatuak, elkarteak, eskolak*
- *Erakunde publikoak*
- *Udalak, erakunde publikoak, konferentzia pribatuak, elkarteen bilerak*
- *Guztiak, eskolak salbu*
- *Erakunde publikoak*
- *Udalak, erakunde publikoak*
- *Udalak (% 25), erakunde publikoak (% 50), konferentzia pribatuak (% 25),*
- *Elkarteen bilerak (%50), Udalak (%33), Alderdi politikoak (%33), Erakunde publikoak (%33)*
- *Denetarik, nahiko banatuta.*
- *Horietan guztietan*
- *Denetan*
- *Zerrenda horretan adierazitako guztiak, erakunde publikoak izan ezik. Gutxi gorabehera denak maila berean, agian eskolak gutxien.*
- *Udalak: %15. Erakunde publikoak: %50. Konferentzia pribatuak: %35*
- *Erakunde publiko nahiz pribatuentzat aritzen naiz, baina gehienetan interpretazio agentzien bitartez.*


## Azpiegitura

**2. Oro har, nola baloratuko zenuke zure eguneroko lana egiteko izaten duzun azpiegitura (gela/aretoa, kabina, mahaia, aulkia, kotsola...)? \***




Interprete autonomo gehienentzat (16tik 11rentzat, hau da, % 68,8rentzat), eguneroko lanerako azpiegitura egokia da, eta batentzat (% 6,3) ona. Hala ere, laurdenarentzat (16tik 4, % 25) azpiegitura desegokia da.

### 3. Kabinak irisgarriak izaten dira? \*




Irisingarritasunaz galdetuta, interprete autonomo gehienek (16tik 11k, hau da, % 68,8k) erantzun dute kabinak gutxitan izaten direla irisgarriak. Gainerako erantzunak honela daude banatuta: batzuetan (16tik 3, % 18,8), maiz (16tik 1, % 6,3) eta oso maiz (16tik 1, % 6,3).

### 4. Komunak gertu egoten dira? \*




Komunen gertutasunari dagokionez, interprete autonomo gehienek (16tik 11k, hau da, % 68,8k) erantzun dute komunak batzuetan egoten direla kabinatik gertu. Gainerako erantzunak honela daude banatuta: maiz (16tik 4, % 25) eta gutxitan (16tik 1, % 6,3).

### 5. Konfort termiko falta ohiko arazotzat joko zenuke? \*




Interprete autonomoen erdientzat (16tik 8, % 50) konfort termino falta ohiko arazoa da, eta beste erdientzat, aldiz, ez.

## 6. Zure esperientzian oinarrituta, zenbateko maiztasunarekin aurkitzen dituzu kotsola eta sistema teknikoak zaharkituta? \*




Kotsola eta sistema tekniko zaharkituekin lan egiten duten maiztasunari buruz galdetuta, interprete autonomo gehienek (16tik 11k, hau da, % 68,8k) erantzun dute kotsola eta sistema teknikoak batzuetan egoten direla zaharkituta. Gainerako erantzunak honela daude banatuta: gutxitan (16tik 4, % 25) eta inoiz ez (16tik 1, % 6,3).

## 7. Kabina itsua<sup>3</sup> egin behar izan duzu inoiz? \*



Interprete autonomo gehienek (16tik 15ek, hau da, % 93,8k) kabina itsua egin behar izan dute noizbait. Bakar batek (% 6,3) erantzun du ez duela inoiz kabina itsua egin.


## 8. Aurreko galderan baietz erantzun baduzu, zenbateko maiztasunarekin?



Kabina itsua egin behar izan dutela erantzun duten 15 interprete autonomoetatik 9k (% 60) erantzun dute batzuetan egin behar izaten dutela. Gainerako erantzunak honela daude banatuta: gutxitan (15etik 5ek, % 33,3) eta maiz (15etik 1ek, % 6,7k).


<sup>3</sup> Kabina itsua deritzo interpretazio-lana hizlaria hitz egiten ari den aretotik kanpo dagoen beste gela batean egiteari. Batzuetan hizlariaren irudia ikus dezake interpreteak, pantaila baten bidez, baina, beste batzuetan, soinua bakarrik iristen zaio, eta, beraz, ezin du ikusi aretoan zer gertatzen den. Horregatik deitzen zaio "itsua".

**9. Kabina itsua egin duzunean, oro har, esango zenuke aparteko gela horrek duintasunez lan egiteko gutxieneko baldintzak betetzen dituela?**



Kabina itsua egin behar izan duten 15 interprete autonomoetatik 8k (% 53,3k) erantzun dute interpretazioa egiteko aparteko gelak ez dituela duintasunez lan egiteko gutxieneko baldintzak betetzen, eta beste 7ek (% 46,7), ostera, baietz.

**10. Teknikariak egon ohi dira egiten dituzun lanetan? \***




Galdetegiari erantzun dioten interprete gehienek (16tik 13k, % 81,3k) erantzun dute teknikariak egon ohi direla beren interpretazio-saioetan. 3k (% 18,8), berriz, ezetz erantzun dute.

**11. Aurreko galderan ezetz erantzun baduzu, nor arduratzen da alderdi teknikoaz?**

Aurreko galderan ezetz erantzun duten 3 interprete horietatik bik bakarrik erantzun diote galdera honi, eta honako hauek dira emandako erantzunak:


- *interpretea(k)*
- *batzuetan neu arduratzen naiz.*

**12. Urrutiko interpretazioa egiten al duzu (online)? \***




Goiko grafikoan ikus daitekeen bezala, interprete autonomo gehienek (16tik 14k, % 87,5ek) urrutiko interpretazioa egiten dute. Ondorioz, 2k (% 12,5ek) ez dute urrutiko interpretaziorik egiten.

### 13. Aurreko galderan baietz erantzun baduzu, zure lanaren zein zati hartzen du urrutiko interpretazioak (online)?




Urrutiko interpretazioa egiten dutela erantzun duten 14 interprete autonomoen artean, gehienentzat (9rentzat, % 64,3), lanaren % 0 eta % 25 artean hartzen du urrutiko interpretazioak. Gainerako erantzunak honela daude banatuta: % 25-50 4 interpreterentzat (% 28,6) eta % 75-100 interprete batentzat (% 7,1).

### 14. Urrutiko interpretazioa egiten duzunean, teknikaririk egoten da?



Galdetegiari erantzun dioten interprete autonomo gehienek, 16tik 10ek (% 62,5), erantzun dute oso maiz (16tik 6k, hau da, % 42,9) edo maiz (16tik 4k, hau da, % 28,6) egoten direla teknikariak urrutiko interpretazioa egiten dutenean. Gainerako erantzunak honela daude banatuta: batzuetan (16tik 3, % 21,4) eta gutxitan (16tik 1ek, % 7,1).


### 15. Zure jardunaren grabazioa interneten jartzen da gerora (Youtuben, adibidez)? \*



Galdera honetan, erantzunak askotarikoak izan dira: 16tik 3k (% 18,8k) erantzun dute beren jarduna interneten oso maiz jartzen dela, 16tik 3k (% 18,8k) maiz jartzen dela, 16tik 5ek (% 31,3k) batzuetan jartzen dela, 16tik 3k (% 18,8k) gutxitan jartzen dela eta, azkenik, 16tik 2k (% 12,5ek) erantzun dute inoiz ez dela jartzen.




**16. Zure jarduna interneten eskuragarri jartzen bada, horretarako baimena eskatu ohi dizute?**




Aurreko galderan 14 izan dira guztira beren jarduna interneten jartzen dela adierazi duten interprete autonomoak. Horretarako baimena eskatu ohi zaien galdetuta, 5ek (% 35,7) erantzun dute inoiz ez zaiela baimena eskatzen, 5ek (% 35,7k) erantzun dute gutxitan eskatu zaiela, 3k (% 21,4k) erantzun dute batzuetan eskatzen zaiela eta 1ek (% 7,1ek) erantzun du oso maiz eskatzen zaiola.

**17. Aldiberekorako azpiegiturarik ez dagoelako esan ostekoa egin behar izaten duzu? \***



Galdetegiari erantzun dioten interprete autonomoen hiru laurdenek (16tik 12k, % 75k) baietz erantzun diote galdera honi, eta laurdenek (16tik 4k, % 25ek), ezetz.

**18. Aurreko galderan baietz erantzun baduzu, zenbateko maiztasunarekin eragin dizkizu egoera desatseginak esan ostekoa egin behar izateak?**



Aurreko galderan 12 interpretek erantzun dute esan osteko interpretazioa egin behar izan dutela aldiberekorako baliabiderik ez zegoelako. Aldiz, galdera honi 4 interpretek bakarrik erantzun diote. Horietatik, 1ek (% 25) erantzun du inoiz ez duela egoera desatseginik izan, 2k (% 50) gutxitan bizi izan dutela egoera desatseginen bat eta beste 1ek (% 25) batzuetan gertatu zaiola.

## 19. Zerbait gehitu nahiko zenuke?


Galdera honetan, honako ekarpen hauek jaso dira:

Interprete batek aipatu du enkarguak iristen zaizkionean normalean ez dela bere lana interneten eskuragarri jartzearen inguruko ezer aipatzen, eta maiz egunean bertan jakiten duela.

Iparraldeko interprete batek azaldu du Ipar Euskal Herrian kabina duten oso gela eta areto gutxi daudela, eta, edonola ere, oso garestiak izaten direla. Horren aurrean, interpreteek beren kabuz erosi behar izan dute interpretazioa egiteko materiala, zerbitzu osoa eskaini eta lanbidean egon daitekeen intrusismoari aurre egiteko. Interprete zehatz hori, gainera, soinu-ekipoaz ere arduratzen da, soinua behintzat ondo hartzeko.


## Tarifak

### 20. Esango zenuke tarifak arazo-iturri direla? \*



Galdetegiari erantzun dioten interprete autonomo gehienentzat (16tik 14rentzat, hau da, % 87,5entzat) tarifak arazo-iturri dira. 2 interpreterentzat (% 12,5), aldiz, ez dira arazo.


### 21. Ikusi al duzu inoiz zeure burua tarifak merkatzera behartuta lan bat ez galtzeko, lehiaketetatik kanpoko lanetan?<sup>4</sup> \*



Galdera honetan, galdetegiari erantzun dioten interpreteen erdiek (8k, % 50) baietz erantzun dute, eta beste erdiek (8k, % 50ak), ezetz.


<sup>4</sup> Lehiaketa edo lizitazioetan, zerbitzu solteetan kontuan hartzen ez diren zenbait faktore behar dira kontuan, besteak beste, kontratuaren iraupena eta interpreteari bermatuko zaizkion lan-saioen kopurua eta aldizkakotasuna. Ondorioz, prezioak ezberdinak izaten dira, sarritan, merkeagoak.

## 22. Ezagutzen al dituzu lankideen tarifak? \*



Galdetegiari erantzun dioten interprete autonomo gehienek (16tik 14k, hau da, % 87,5ek) lankideen tarifak ezagutzen dituzte. 2 interpreteek (% 12,5), aldiz, ez dituzte ezagutzen.

## 23. Tarifa ezberdinak dauzkazu aurrez aurreko eta urrutiko (online) interpretazioa egiten duzunean? \*



Galdetegiari erantzun dioten interprete autonomo guztiek (16tik 16, % 100) tarifa berdinak dituzte aurrez aurreko eta urrutiko interpretazioa egiten dutenean.


## 24. Zerbait gehitu nahiko zenuke?

Galdera honetan, honako ekarpen hauek jaso dira:

- *Agentzia, bitartekaria edo bezeroa EHkoa ez denean buruhauste nahikotxo izan ditut tarifa duinak lortzen eta maiz mantendu baino lana galdu izan dut horregatik.*
- *Tarifa oztopo dela diot, batez ere bezero batzuentzat (euskaigintza zabalekoak nagusiki). Ez dute dirurik kabinak eta teknikariak ordaintzeko, eta batzuetan bi interprete izatea ere oztopo da. Kasu horietan hautsi-mautsiak egiten ditut; profesionala izateaz gain, edo lehenago, militantea naizelako. Halere, beti azaltzen diot bezeroari baldintza onekin hobe dela, bai interpreteontzat baita antolatzaileak ematen duen irudi publikoarentzat. Baina diruak du agintzen, gehienetan.*
- *Tarifak merketzeari dagokionez, nik ez ditut inoiz jaitsi, baina bai galdu ditut lanak horregatik. Beraz, ezin esan "behartuta" ikusi naizenik, ez dudalako egin, baina lanak galdu bai, eta dezente.*
- *Tarifak ez merketzea nire erabakia izan ohi da. Eta gertatu izan zait horregatik lana ez eskuratzea.*
- *Ezagutzen ditut lankideen tarifak, oro har.*


## Euskarako kabinako interpreteen kopurua

**25. Zure ustez, nahikoa al da euskarako kabinako interpreteen kopurua egungo merkatuan dagoen lan-zamari aurre egiteko? \***




Galdetegiari erantzun dioten interprete autonomoen hiru laurdenek (16tik 12k, % 75) euskarako kabinako interprete kopurua nahikoa dela irizten dute. Aldiz, laurden batek (16tik 4k, % 25) merkatuan dagoen lan-zamari aurre egiteko interprete gutxiegi dagoela uste du.

**26. Zure burua behartuta ikusi al duzu inoiz beste norbait eskuragarri egon izan balitz hartuko ez zenukeen lan bat hartzera? \***




Galdetegiari erantzun dioten interprete autonomoen hiru laurdenek (16tik 12k, % 75) ez dute inoiz beren burua behartuta ikusi beste interpreteren bat eskuragarri egon izan balitz hartuko ez luketen lan bat hartzera. Aldiz, laurden batek (16tik 4k, % 25) egoera horretan ikusi du bere burua.

**27. Zenbateko maiztasunarekin egin behar izaten dituzu bi lan egun berean? \***




Galdetegiari erantzun dioten interprete autonomoen erdiek (16tik 8, % 50) gutxitan egiten dituzte bi lan egun berean, laurden batek (16tik 4k, % 25ek) batzuetan eta beste laurden batek (16tik 4k, % 25ek) inoiz ez.

**28. Interprete falta dagoela uste baduzu, esango zenuke horrek gehiegizko lan-karga eragiten dizula?**




25. galderan 4 interpreteek erantzun dute beren ustez ez dagoela interprete nahikoa merkatuko lan-zamari aurre egiteko. Edonola ere, galdera honi interprete gehiagok erantzun diote, 16tik 11k, hain zuzen, eta denek (11tik 11, % 100) erantzun dute interprete faltak ez diela gehiegizko lan-karga eragiten.

**29. Esango zenuke horrek zure osasun fisiko eta/edo mentalean eragiten duela?**



Aurreko galderari emandako erantzunen ildo beretik, galderari erantzun dioten 11 interpreteek (% 100) uste dute interprete faltak ez diela osasun fisiko eta/edo mentalean kalterik eragiten.

**30. Zenbateko maiztasunarekin egoten zara kabinan zeu bakarrik, egokiena bi interprete egotea izanik? \***



Honela banatuta daude galdera honi emandako erantzunak: 16tik 5ek (% 31,3) *inoiz ez* erantzun dute, 16tik 6k (% 37,5ek) *guxitan*, 16tik 4k (% 25) *batzuetan* eta 16tik 1ek (%) *maiz*.


**31. Zerbait gehitu nahiko zenuke?**

Galdera honetan, honako ekarpen hauek jaso dira:

- *Ikaskide batzuek une jakin batzuetan interpreterik aurkitu ezin badute ere, nik oraingoz ez dut egoera hori bizi, kontrakoa baizik, normalean oso interpretazio gutxi ateratzen zaizkit. Lehen aipatu dudan bezala, irailean etorri nintzen EHra, eta merkatuan murgiltzen ari naizela uste dut.*
- *Batzuetan proposatu izan didate lana bakarka egiteko, baina normalean bezeroek onartzen dute bi interpreteren beharra, hala denean.*
- *Gerta liteke aurreikusi ezin zitezkeen aldagaiengatik lan egoera aldatzea. Baina oso gutxitan gertatzen da.*
- *Bi interprete egon behar direla uste dudanean, hala adierazten diot bezeroari eta hala onartu ohi dute.*


## Hizkuntza-norabidea

**32. Euskara tartean dagoenean, zenbateko maiztasunarekin egiten duzu lan norabide bietan, hau da, euskaratik beste hizkuntza batzuetara eta beste hizkuntza batzuetatik euskarara? \***




Galdetegiari erantzun dioten interprete autonomo guztiek egin behar izaten dute interpretazio-lana euskaratik beste hizkuntza batzuetara eta beste hizkuntza batzuetatik euskarara, norabide bietan, baina maiztasun ezberdinarekin: 16tik 3k (% 18,8) oso maiz, 16tik 4k (% 25) gutxitan, 16tik 4k (% 25) maiz eta 16tik 5ek (% 31,3) batzuetan.

**33. Eta beste hizkuntza hori gaztelania denean? \***



Hizkuntza-konbinazioa zehaztuta (euskaratik gaztelaniara eta gaztelaniatik euskarara), apur bat aldatu dira erantzunak. 16 interpretetik 2k (% 12,5) *inoiz ez* erantzun dute, 3k (% 18,8k) *gutxitan*, 4k (% 25) *batzuetan*, 3k (% 18,8) *maiz* eta 4k (% 25) *oso maiz*.


**34. Zein beste hizkuntzarekin egiten duzu lan euskaratik eta/edo euskarara? \***



Goiko grafikoan ikus daitekeen bezala, beste hizkuntza hauek aipatu dira: ingelesa, frantsesa, alemana, italiara, portugesa eta katalana. Ingelesa da nagusi, eta atzetik dator frantsesa.


**Dokumentazioa aurretiaz jasotzea**

**35. Zuretzat arazo al da dokumentazioa aurrez ez jasotzea, prestaketa-lana behar bezala eta denbora nahikoarekin egiteko? \***




Galdetegiari erantzun dioten interprete guztiek (16tik 16, % 100) uste dute arazoa dela dokumentazioa prestaketa-lana behar bezala eta denbora nahikoarekin egin ahal izateko.

**36. Oro har, zenbat denbora lehenago jasotzen duzu? \***




Normalean dokumentazioa interpretazio-lana egin baino zenbat denbora lehenago jasotzen duten galdetuta, erantzunak askotarikoak izan dira: 16tik 7k (% 43,8k) egun bat lehenago jasotzen dutela erantzun dute, 4k (% 25ek) egun batzuk lehenago jasotzen dutela, 3k (% 18,8k) minutu batzuk lehenago eta 2k (% 12,5ek) ordu batzuk lehenago.

**37. Zenbateko maiztasunarekin ez duzu inolako dokumentaziorik jasotzen? \***




Galdetegiari erantzun dioten interpreteen erdiei (16tik 8ri, % 50ek) maiz gertatzen zaie inolako dokumentaziorik ez jasotzea, 6ri (% 37,5i) gutxitan eta 2ri (% 12,5i) batzuetan.

**38. Dokumentazioa denbora nahikoarekin jasotzen baduzu, itzuli egiten duzu? \***



Dokumentazioa denbora nahikoarekin jasotzen badute, interprete autonomo gehienek (16tik 14k, % 87,5ek) itzuli egiten dute. 2k (% 12,5ek), aldiz, ez.


**39. Aurreko galderan baietz erantzun baduzu, itzultzaile automatikoa erabiltzen duzu itzulpena egiteko? \***



Aurreko galderan 14 interpretek erantzun dute normalean dokumentazioa itzuli egiten dutela denbora nahikoarekin jasotzen badute. Galdera honi, ostera, 15 interpretek erantzun diote, eta horietatik 14k (% 93,3k) erantzun dute itzultzaile automatikoa erabiltzen dutela itzulpen hori egiteko. Interprete 1ek (% 6,7k) erantzun du ez duela itzultzaile automatikoa erabiltzen.




#### 40. Zenbateko maiztasunarekin jasotzen duzu dokumentazioa soilik paperean? \*



Galdetegiari erantzun dioten 16 interprete autonomoetatik 2k (% 12,5) erantzun dute batzuetan jasotzen dutela dokumentazioa soilik paperean, 5ek (% 31,3k) esan dute dokumentazioa ez dutela inoiz soilik paperean jasotzen eta 9k (% 56,3k) gutxitan jasotzen dutela soilik paperean.

#### 41. Dokumentazioa paperean jasotzen duzunean, erabiltzen al duzu errekonozimendu optikoko sistemarik testua digitalizatu eta automatikoki itzuli ahal izateko? \*



Dokumentazioa paperean jasotzen dutenean, galdetegiari erantzun dioten 16 interpreteetatik 10ek (% 62,5ek) ez dute errekonozimendu optikoko sistemarik erabiltzen; aldiz, 6tik 6k (% 37,5), bai.

#### 42. Zerbait gehitu nahiko zenuke?

Galdera honetan, honako ekarpen hauek jaso dira:


- *Irakurriko dituzten testuak itzultzaile automatikoarekin itzuli izan ditut, kasu horietan euskara eta gaztelaniaren hurrenkeraren arteko ezberdintasuna dela medio, lagungarriago egiten zaidalako euskarazko testua begi aurrean izatea, gaztelaniazkoa baino.*
- *Baina gero zuzendu egiten dut beti. Horretarako astirik ez badago, tentu handiz jokutzen dut.*

## HIRUGARRENEN KONTURAKO LANGILEENTZAKO GALDERAK

### Lantokia

#### 1. Zein erakundetan egiten duzu lan? \*

Hirugarrenen konturako interpreteen lantokiak




- Udalak (10)
  - Bilboko Udala (3)
  - Arrasateko Udala (1)
  - Zaldibar Elizateko Udala (1)
  - Donostiako Udala (1)
  - Laudioko Udala
  - Amorebieta Etxanoko Udala
  - Erandioko Udala
  - Errenteriako Udala
- Aldundiak – Batzar Nagusiak (8)
  - Gipuzkoako Foru Aldundia (2)
  - Bizkaiko Batzar Nagusiak (2)
  - Arabako Batzar Nagusiak (2)
  - Gipuzkoako Batzar Nagusiak (2)
- Eusko Jaurlaritza – Eusko Legebiltzarra – Nafarroako Parlamentua (4)
  - Eusko Legebiltzarra (1)
  - Nafarroako Parlamentua (1)
  - Eusko Legebiltzarra (2)
- Bestelako erakunde publikoak (3)
  - Osakidetza (2)
  - UPV/EHUko lan-kontratudun pertsonala naiz (1)
- Bestelako erakundeak (2)
  - Aiaralde Kooperatiba Elkartea (1)
  - Plazara elkartea (1)

## 2. Zehazki, zein lanpostu eta kategoriatan? \*


Galdera honetan, interprete guztiak ez diete galdera biei erantzun. Horregatik, lehenik eta behin, jasotako erantzunak multzokatuta eta grafikoan bidez azalduta emango ditugu, eta ondoren interpreteek emandako erantzunak beren horretan.

Lanpostuaren izendapenari dagokionez, honako hauek izan dira emaitzak:



Grafikoan ikusten denez, hirugarrenen kontura lan egiten duten interprete gehienek (27tik 15, hau da, % 55,55) itzultzaile-interprete izendapena duten lanpostuetan egiten dute lan.

Kategoriari dagokionez, aldiz, erantzun hauek jaso dira:




Grafikoan ikusten denez, galderari erantzun dioten interprete gehienek A1 kategoriako lanpostuak dauzkate. Hala ere, tentuz interpretatu beharreko emaitza da hau. Izan ere, interprete askok ez dute erantzun, eta txosten honetarako ez da lanpostuaren izendapenaren eta kategoriaren arteko harremana aztertu.

Hauek dira interpreteek hitzez hitz emandako erantzunak:

- itzultzaile eta interpretea, A1
- Itzultzaile/interpretea
- Interpretea
- Itzultzaile-interpretea
- B kategoriako funtzionarioa
- Itzultzailea
- Itzultzaile eta euskara teknikari lanpostua
- Itzultzaile-interpretea
- itzultzaile-interpretea
- Itzultzaile-interpretea, berez, baina itzulpen-proiektuak kudeatzen. Lanpostuaren izena hauxe da: Antolakuntzako Goi Mailako Teknikaria - Itzultzaile-interprete funtzioak
- Itzultzaile, interprete eta zuzentzailea
- A1 euskarako interprete-itzultzailea
- Talde profesionala: oficiales administrativos
- Itzultzaile
- Gaztelania<->Euskara itzultzaile-interpretea, 1 taldea.
- Euskara eta antolaketako goi mailako teknikari
- Itzultzaile-interprete goi mailako teknikaria
- Itzultzaile-interpretea (A1 kategoria)
- Itzultzailea, A2 kategoria (erdi mailako teknikaria)
- Itzultzaile, zuzentzaile eta interprete
- Itzultzaile-interpretea, goi mailako teknikaria
- Itzultzaile-interpretea A1
- Itzultzailea
- Itzultzaile-interpretea
- Itzultzaile-interprete (A1)
- Erdi mailako teknikaria: itzultzaile-interpretea. A2 sailkapen taldea
- B maila

### 3. Interpretazio-lana egitea zure lanpostuaren zereginen barruan aitortuta dago? \*

Interpretazio-lana, zereginetan aitortuta



Goiko grafikoan ikus daitekeen bezala, galdetegiari erantzun dioten hirugarrenen konturako 27 interpreteetatik gehienek (27tik 25, hau da, % 92,6k) beren lanpostuaren zereginen artean aitortuta daukate interpretazio-lana. Hortaz, 27tik 2k (% 7,4k) ez


daukate beren lanpostuari dagozkion zereginen artean aitortuta, nahiz eta normalean egiten duten.

#### 4. Zerbait gehitu nahiko zenuke?

Galdera honetan ez du inork ezer gehitu.


#### Lan-baldintzak

#### 5. Baduzu beste lankide interpreterik? \*




Goiko grafikoan ikus daitekeen bezala, galdetegiari erantzun dioten hirugarrenen konturako interpreteen ia hiru laurdenek (27tik 20k edo % 74,1ek) interpretea den beste lankideren bat dute. Horrek berekin dakar ia laurden batek (27k 7k edo % 25,9k) interpretazio-lan guztia hartzen duela bere gain.

#### 6. Aurreko galderan baietz erantzun baduzu, zenbat interprete zarete guztira?




Goiko grafikoan ikus daitekeen bezala, galdetegiari erantzun dioten interpreteen kasuan, lan-talde gehienak hiru interpretekoak dira. Hala ere, aipatzekoa da erakunde batzuetan lan-taldeak handiagoak direla.

### 7. Lan-karga egokia da zure lantokian dagoen interprete-kopuruarentzat? \*




Galdetegiari erantzun dioten interprete gehienek ustez (27tik 22, % 81,5), lan-karga egokia da dagoen interprete kopuruarentzat. Aldiz, 5entzat (% 18,5) lan-karga ez dator bat dagoen interprete kopuruarekin.

### 8. Oro har, nola baloratuko zenituzke zure lan-baldintzak? \*




Lan-baldintzen inguruan galdetuta, galdetegiari erantzun dioten 27 interpreteek honako erantzun hauek eman dituzte: 1ek (% 3,7k) guztiz desegokiak, 1ek (% 3,7k) desegokiak, 7k (% 25,9k) egokiak, 4k (% 14,8k) onak eta 14k (% 51,9k) oso onak.

### 9. Interpretazio-lana egiteko prestakuntza egokia dute zure lantokiko interprete guztiek? \*




Grafikoan ikus daitekeen bezala, galdetegiari erantzun dioten hirugarrenen konturako interpreteen % 63k (27tik 17k) uste dute beren lantokiko interprete guztiek interpretazio-lana egiteko prestakuntza egokia daukatela. Ostera, % 37ak (27tik 10ek) uste dute beren lantokiko interprete guztiek ez dutela interpretazio-lana egiteko prestakuntza egokia.

### 10. Teknikaririk egoten da interpretazio-saioetan? \*



Galdetegiari erantzun dioten 27 interpreteetatik 15ek (% 55,6k) erantzun dute teknikaria egoten dela, 7k (% 25,9k) ez dela teknikaririk egoten eta 5ek (% 18,5ek) teknikariak saio mota jakin batzuetan bakarrik egoten direla.

### 11. Zenbateko maiztasunarekin egin behar izaten dituzu bi interpretazio-saio egun berean? \*



Galdetegiari erantzun dioten hirugarrenen konturako 27 interpreteek erantzun hauek eman dituzte: 8k (% 29,6k) inoiz ez, 9k (% 33,3k) gutxitan, 8k (% 29,6k) batzuetan, 1ek (% 3,7k) maiz eta beste 1ek (% 3,7) oso maiz.

### 12. Zerbait gehitu nahiko zenuke?


Galdera honetan, honako ekarpen hauek jaso dira:

- *Goiko galderan falta da erantzun bat: EZ DAGOKIO. Izan ere, gurean interprete barik ESAN OSTEKOA egiten da, kabinarik ez dagoelako.*
- *Oso hitz-hartze laburrak izaten dira batzuetan (prentsaurrekoak, adibidez). Horietan interprete bakarra aritzen da. Gainerako saio, jardunaldi eta abarretan bi.*
- *Bi interprete gara, eta, berez, lan-karga egokia da bi pertsonarentzat. Halere, azken bi hilabeteetan neuk bakarrik egin behar izan dut interpretazio-lana, unean uneko egoera dela eta.*
- *Kabinan beti ni bakarrik egoten naiz, itzultzaile bakarra bainaiz. Udalak Informazio Batzordeak izaten dituenean, egun berean izaten dira. Lehenengoa 08:30etik 10:00etara, jarraian, 10:00etatik 12:00etara, eta ondoren, 12:00etatik 14:00etara. Ezin da jakin saioen iraupena aldezturik, baina batzuetan bat amaitu eta beste hasten da luzatu egiten direlako, eta halakoetan 08:30etik 12:00etara neuk egiten dot, eta 12:00etatik 14:00etara euskara teknikariari esaten diot mesedez igotzeko, nekatuegi nagoela-eta*

- *Iaz desberdin erantzungo nituzkeen atal honetako galderak. Hemen hasi nintzenetik, itzultzekoak behera (itzultzaile automatikoen eraginez?) eta interpretazio saioak gora doaz. Euskaraz aritzeko joera handitu ahala, gero eta batzorde eta bilkura gehiagotan eskatzen dute interpretazioa, eta azkenaldian nabarmen. Itzultzaile-interprete bakarra naizenez, gehiegizko pilaketa dakar horrek batzuetan, behar bezala prestatu ezina, saio luzeegiak, eta baita lan-egutegia erabat baldintzatzea ere. Azken asteetan ohiko bihurtzen ari da saio bat baino gehiago jartzea egun berean, zenbaitetan elkarren arteko batere tarterik gabe. Kasuren batean lortu dut aldatzea, baina oraintxe hori da norabidea, dakarren guztiarekin.*


## Azpiegitura

### 13. Oro har, nola baloratuko zenuke zure eguneroko lana egiteko izaten duzun azpiegitura? (gela/aretoa, kabina, mahaia, aulkia, kontsola...)? \*



Galdetegiari erantzun dioten hirugarrenen konturako 27 interpreteek erantzun hauek eman dituzte: 7k (% 25,9k) desegokiak, 8k (% 29,6k) egokiak, 9k (% 33,3k) onak eta 3k (% 11,1k) bikainak.


### 14. Non aritzen zara? \*



Grafikoari erreparatuta ikus daitekeen moduan, hirugarrenen konturako interprete gehienek (27tik 17, % 63) kabinetan egiten dute interpretazio-lana. Dena den, 8k (% 29,6k) aparteko gela batean egiten dute eta 2k (% 7,4k) esan ostekoa, hizlariaren areto berean.




**15. Aurreko galderan, "aparteko gela batean" erantzuna hautatu baduzu, aparteko gela horrek duintasunez lan egiteko gutxieneko baldintzak betetzen ditu?**




Aurreko galderan 8 interpreteek erantzun dute "aparteko gela batean" egiten dutela interpretazio-lana, baina galdera honi 10 interpreteek erantzun diote. Horien erdiek (5ek, % 50) uste dute aparteko gela horrek duintasunez lan egiteko gutxieneko baldintzak betetzen dituela, eta beste erdiek ezetz.

**16. Beste inor egoten da kabina edo aparteko gela horretan, interpreteez gain?**




Galdera honi 24 interpreteek erantzun diote, eta honela daude banatuta erantzunak: 24tik 16k (% 66,7k) *inoiz ez* erantzun dute, 2k (% 8,3) *gutxitan*, 5ek (% 20,8) *batzuetan* eta 1ek *oso maiz*.

**17. Aparteko gela horretan, irudi proiektatuak ikusteko modua duzu?**




Galdera honi, ostera, 21 interpreteek erantzun diote. Horietako gehienek (21etik 19k, % 90,5ek) irudi proiektatuak ikusteko modua dute. Hala ere, 2k (% 9,5ek) erantzun dute ez daukatela irudiak ikusteko modurik.

### 18. Zure lantokian kabina badago, behar bezala intsonorizatuta dago?




Galdera honi ere 21 interpreteek erantzun diote. 21 interprete horietatik 13k (% 61,9k) erantzun dute beren lantokiko kabina behar bezala intsonorizatuta dagoela, eta 8k (% 38,1ek) ezetz.

### 19. Zure lantokian kabina badago, irisgarria da?




Galdera honi 19 interpreteek erantzun diote. 19 horietatik 13k (% 68,4k) erantzun dute kabina irisgarria dagoela beren lantokietan eta 7k (% 31,6k), aldiz, ezetz.

### 20. Komunak gertu daude interpretazio-lana egiteko erabiltzen duzun kabina edo aparteko gelatik? \*




Komunen gertutasunari buruz galdetuta, galdetegiari erantzun dioten hirugarrenen konturako 27 interpreteetatik 26k (% 96,3k) erantzun dute gertu daudela kabinatik edo interpretazioa egiteko erabiltzen duten gelatik. Ondorioz, interprete bakar batek (% 3,7) erantzun du ezetz.

### 21. Konfort termikoa egokia da? \*




Konfort termikoari dagokionez, galdetegiari erantzun dioten 27 interpreteetatik 21ek (% 77,8k) erantzun dute egokia dela eta 6k (% 22,2) ezetz.

### 22. Urrutiko interpretazioa egin behar izaten duzu (online)? \*




Urrutiko interpretazioa egin behar izaten duten galdetuta, honako hauek izan dira galdetegiari erantzun dioten hirugarrenen konturako 27 interpreteen erantzunak: 15ek (% 55,6k) *inoiz ez* erantzun dute, 8k (% 29,6k) *pandemia garaian soilik*, 2k (% 7,4) *gutxitan* eta 2k (% 7,4) *maiz*.

### 23. Zure jardunaren grabazioa interneten jartzen da gerora (Youtuben, adibidez)? \*




Galdetegiari erantzun dioten 27 interpreteetatik 18k (% 66,7) erantzun dute beren jarduna interneten jarri ohi dela eta 9k (% 33,3k) ezetz.

#### 24. Aurreko galderan baietz erantzun baduzu, horretarako baimena eskatu dizute?




Aurreko galderan 18 interpreteek erantzun dute baietz, beren jarduna interneten jarri ohi dela, baina galdera honi 10 interpreteek bakarrik erantzun diote. 10 horietatik 9k (% 90) erantzun dute ez zaiela horretarako baimenik eskatu. Beraz, interprete bati (% 10) baimena eskatu zaio.

#### 25. Aldiberekorako azpiegiturarik ez dagoelako esan ostekoa egin behar izaten duzu? \*




Galdetegiari erantzun dioten hirugarrenen konturako interprete gehienek (27tik 24k, % 88,9k) ez dute esan ostekoa egin beharrik izaten ez daukatelako aldibereko interpretazioa egiteko azpiegiturarik. Hortaz, 3k (% 11,1) esan ostekoa egin behar izaten dute.

#### 26. Aurreko galderan baietz erantzun baduzu, zenbateko maiztasunarekin eragin dizkizu egoera desatseginak esan ostekoa egin behar izateak?



Aurreko galderan 3 pertsonak erantzun dute esan ostekoa egin behar izaten dutela, baina galdera honi, aldiz, 5 pertsonak erantzun diote. 5 horietatik 1ek (% 20) *inoiz ez* aukeratu du, beste 1ek (% 20) *gutxitan* eta gainerako 3rek (% 60) *batzuetan*.

## 27. Zure lantokian sumatu al duzu interpretazio, transkripzio edo itzulpen automatikoa erabiltzeko gogorik? \*



Galdera honetan emaitzak nahiko parekatuta egon dira: galdetegiari erantzun dioten hirugarrenen konturako 27 interpreteetatik 14k (% 51,9) baietz erantzun dute, hau da, interpretazio, transkripzio edo itzulpen automatikoa erabiltzeko gogoia sumatu dutela beren lantokietan. Aldiz, gainerako 13ek (% 48,1) ezetz erantzun dute.


## 28. Zerbait gehitu nahiko zenuke?

Galdera honetan, honako ekarpen hauek jaso dira:

- *Hau anabasa hau arautu beharra dago*
- *Kabinan eta Aparteko geletan ere aritzen naiz. 2) Zure lantokian sumatu al duzu interpretazio, transkripzio... galderan Gutxi jarri nahiko nuke.*
- *Ez dut inoiz kabinan lan egiten, aldibereko interpretazioa gela berean egiten dut, kaskoen bidez.*
- *Itzulpen automatikoa erabiltzen dugu eguneroko lanean. Baliagarria egiten zaigu hizlarien hitzak azkar erdaratuta eramateko.*
- *Osoko bilkurak interpretatzen ditut, eta YouTuben ematen dira zuzenean. Ez dut horretarako propio baimenik eman, baina lanean hasi aurretik banekien hala zela.*


## Hizkuntza-norabidea

### 29. Euskara tartean dagoenean, zenbateko maiztasunarekin egiten duzu lan norabide bietan, hau da, euskaratik beste hizkuntza batzuetara eta beste hizkuntza batzuetatik euskarara? \*



Galdetegiari erantzun dioten 27 interpreteen gehiengoak (27tik 25, % 92,6k) ez du inoiz interpretazio-lana hizkuntza-norabide bietan egiten. 2k (% 7,4k), ostera, batzuetan egiten dute.

### 30. Eta beste hizkuntza hori gaztelania denean? \*



Aurreko galderan 2 interpreteek erantzun dute batzuetan norabide bietan egin behar dutela interpretazio-lana, baina galdera honetan 4k (% 15,8k) hautatu dute “inoiz ez” ez den aukeraren bat. Zehazki, 3k (% 11,1) erantzun dute gutxitan egin behar izaten dutela gaztelaniatik euskararako interpretazioa, eta 1ek (% 3,7) batzuetan egin behar izaten duela.

### 31. Zein beste hizkuntzarekin egiten duzu lan euskaratik eta/edo euskarara? \*

Galdera honetan, ingelesa birritan aipatu da eta frantsesa behin:

- Ingelesa<>euskara egin izan dut batzuetan
- Ingelesetik, baina behin bakarrik izan zen.
- Frantsesa

Gainerako guztiek gaztelaniarekin bakarrik egiten dute lan.


### 32. Zerbait gehitu nahiko zenuke?

Galdera honetan, honako ekarpen hauek jaso dira:

- Beste hizkuntza batzuetako konbinazioetarako, kanpoko itzultzaileak izaten ditugu.
- Hizlariak euskaraz hitz egiten duenean, gaztelaniara interpretatzen dut. Norabide horretan bakarrik egiten dut.
- Batzar Nagusietan interpretazio-lana euskaratik gaztelaniara bakarrik egiten da


Dokumentazioa aurretiaz jasotzea

### 33. Zuretzat arazo al da dokumentazioa aurrez ez jasotzea, prestaketa-lana behar bezala eta denbora nahikoarekin egiteko? \*




Grafikoan ikus daitekeen bezala, galdetegiari erantzun dioten interprete gehienentzat (27tik 23, % 85,2) arazoa da dokumentazioa behar besteko denborarekin ez jasotzea. Ostera, 4rentzat (% 14,8) ez da arazoa.

**34. Oro har, zenbat denbora lehenago jasotzen duzu? \***




Normalean dokumentazioa interpretazio-lana egin baino zenbat denbora lehenago jasotzen duten galdetuta, erantzunak askotarikoak izan dira: 27tik 4k (% 14,8) egun batzuk lehenago jasotzen dutela erantzun dute, 6k (% 22,2k) egun bat lehenago jasotzen dutela, 11k (% 40,7k) ordu batzuk lehenago, 5ek (% 18,5ek) minutu batzuk lehenago eta 1ek (% 3,7k) hitzaldia hasita dagoela.

**35. Zenbateko maiztasunarekin ez duzu inolako dokumentaziorik jasotzen? \***




Galdetegiari erantzun dioten 27 interpreteetatik 1i (% 3,7) inoiz ez zaio gertatzen dokumentaziorik ez jasotzea, 6ri (% 22,2) gutxitan gertatzen zaie, 9ri (% 33,3) batzuetan, 6ri (% 22,2) maiz eta 5i (% 18,5i) oso maiz.

**36. Dokumentazioa denbora nahikoarekin jasotzen baduzu, itzuli egiten duzu? \***



Galdetegiari erantzun dioten hirugarrenen konturako interprete gehienek, zehazki, 27tik 23k (% 85,2k), dokumentazioa itzuli egiten dute denbora nahikoarekin jasotzen badute, eta 4k (% 14,8k), aldiz, ez.


**37. Zenbateko maiztasunarekin jasotzen duzu dokumentazioa soilik paperean? \***




Galdetegiari erantzun dioten hirugarrenen konturako 27 interpreteetatik 17k (% 63) erantzun dute gutxitan jasotzen dutela dokumentazioa soilik paperean, 7k (% 25,9k) gutxitan gertatzen zaiela, 2k (% 7,4k) esan dute dokumentazioa ez dutela inoiz soilik paperean jasotzen eta 1ek (% 3,7k) oso maiz jasotzen duela dokumentazioa soilik paperean.

**38. Dokumentazioa paperean jasotzen duzunean, erabiltzen al duzu errekonozimendu optikoko sistemarik testua digitalizatu eta automatikoki itzuli ahal izateko? \***

Dokumentazioa paperean jasotzen dutenean, galdetegiari erantzun dioten 27 interpreteetatik 24k (% 88,9k) ez dute errekonozimendu optikoko sistemarik erabiltzen; aldiz, 27tik 3k (% 11,1), bai.




**39. Ohiko lan-ordutegitik kanpo lan egin behar izaten duzu interpretazio-saioak prestatzeko dokumentazioa berandu jasotzen duzulako? \***



Galdetegiari erantzun dioten 27 interpreteetatik 16k (% 59,3k) ohiko lan-ordutegitik kanpo egin behar izaten dute lan interpretazio-saioak prestatzeko. Osera, 11k (% 40,7k), ez.




#### 40. Erraztasunak dituzu ordutegiz kanpo sartutako ordu horiek berreskuratzeko? \*



Aurreko galderan 16k erantzun dute ohiko lan-ordutegitik kanpo egin behar izaten dutela lan. Galdera honi, aldiz, interprete guztiek (27ek) erantzun diote. 27 horietatik 15ek (% 55,6) erraztasunak dituzte ordutegitik kanpo lan egindako orduak berreskuratzeko, eta 12k (% 44,4k), ez.

#### 41. Ba al duzu azken orduko dokumentazioa kabinan zaudela lantzeko erarik edo baliabiderik (ordenagailua, inprimagailua...)? \*



Azken orduan iritsitako dokumentazioa kabinan bertan lantzeko baliabiderik duten galdetuta, galdetegiari erantzun dioten 27 interpreteetatik 19k (% 70,4) baietz erantzun dute, eta 8k (% 29,9ak), ezetz.

#### 42. Zerbait gehitu nahiko zenuke?

Galdera honetan, honako ekarpen hauek jaso dira:

- *Ba al duzu azken orduko dokumentazioa kabinan zaudela lantzeko erarik... hau erantzungo nuke: Normalean ez, baina inoiz eraman izan dugu laneko portatila. Kontua da askotan ez dugula konexio onik eta zaila dela behar den moduan lan egitea.*
- *Baliagarria litzateke kabinan bertan ordenagailu bat, interneterako sarbidea eta inprimagailua izatea, baina ez daukagu halakorik.*
- *Normalean dokumentazioa elebitan jasotzen dut beti.*
- *Bilkura formalak oso egituratuta daude, eta dokumentazioaren zati nagusia oro har deialdiarekin batera jasotzen dut, egun batzuk lehenago. Irakurriko dituzten mintzaldiekin datoz arazoak, beti pertsona berekin. Ez dut asmo txarrik sumatzen, benetan uste dut ez dutela ulertzen zer eta zergatik eskatzen dieran, behin eta berriro azaldu arren. Eta beste arazo bat izaten da azken orduko aldaketen berri izatea (mozio alternatiboak, adib.), kostatzen zaie barneratzea ni ez nagoela haien arteko elkarrizketa horietan, baina nik ere jakin behar dudala zer egosten ari den eta testu horiek behar ditudala. Hala ere, komeria handienak bilkura ez hain*

*arautuetan izaten dira: bozeramaileen batzordean edo departamentukako aurrekontuen aurkezpenean, adibidez. Halakoetan, interpreteari bilera egingo dutela aurrez esatea ere ahaztu izan zaie, eta egunean bertan konturatu. Departamentuen ordena zein izango den esatea eskatzea... gehitxo. Gutxitan, baina gertatzen dira halakoak.*

## ONDORIOAK

### Egungo euskal interpreteen profila

Galdetegiak erakutsi du egungo euskal interpreteen profila anitza dela, eta, ondorioz, azterketa xeheagoa merezi duela. Dena den, eta orokortze aldera, badira adierazgarriak izan daitezkeen zenbait datu orokor. Hasteko, interesgarria da generoari erreparatzea eta datuen bidez berrestea orain arte susmoa zena: egun aktibo dauden interprete gehienak emakumeak dira.

Gaur egun lanean ari diren interprete horien batez besteko adina 45,79 urtekoa da, eta, beraz, horrek erakusten du interprete gazte zein helduak ari direla merkatuan aldi berean lanean. Ildo horretan, lan-esperientziari ere heldu behar zaio. Izan ere, interpreteen erdiek baino gehiagok 10 urtetik gorako lan-esperientzia dute. Hortaz, badirudi ofizioaren transmisioa behar bezala egin dela. Ziurrenik, prestakuntzak zerikusi handia izango zuen horretan.

Interprete gehienek unibertsitate-mailako ikasketak dituzte, izan 1. ziklokoak (diplomatura, lizentziatura edo gradua), izan 2. ziklokoak (graduondokoak eta masterrak). Hala ere, interpreteen erdiek dituzte, gutxi gorabehera, itzulpengintzako eta interpretazioko ikasketa espezifikoak. Zentzu horretan, aipatzekoa da, halaber, interpreteen erdiek, gutxi gorabehera, prestakuntza gehiagoren falta nabaritzen dutela. Ziurrenik, lotuta egongo dira emaitza biak.

Horrez gain, helburua Euskal Herri osoko interpreteak barne hartzea izan bada ere, agerian geratu da EAEren nagusitasuna, bai interpreteen jaiolekuari, bai interpreteen lantokiari dagokienez. Gainera, badirudi galdera gehienak ez direla pertinenteak Ipar Euskal Herriko interpreteentzat, oso urruti baitaude haien errealitatetik. Hala ere, galdetegia prestatu eta egokitzeko garaian ez zen jaso horri buruzko ekarpenik.

Ildo horretan, ezin da esan gabe utzi diagnostiko honetan ez dela euskararen lurraldeetatik kanpoko jardunaz galdetu, betiere euskara lan-hizkuntza dela. Hori aurrerago aztertzeko geratu da.

Aipatzekoa da, halaber, interpreteen ia hiru laurdenen kasuan, interpretazio-lanak beren lan profesionalaren erdia edo gutxiago hartzen duela. Itzulpena eta zuzenketa dira interpretazioarekin batera egiten diren jarduerarik ohikoenak, baina beste batzuk ere aipatu dira galdetegian: irakaskuntza, teknikari-lanak, lokalizazioa...

## Interprete autonomoak

Oro har, arlo askotan aritzen dira lanean, batez ere erakunde publikoetan, udaletan eta konferentzia pribatuetan, baina bestelako testuinguruetan ere jarduten dute.

Beren lanerako azpiegituraren egokitasunaz galdetuta, hiru laurdenek egokitzat jotzen dute. Hala ere, interprete autonomo gehienek adierazi dute kabinak, gehienetan, ez direla irisgarriak eta komunak batzuetan bakarrik egoten direla gertu. Gainera, interprete autonomoen erdientzat konfort termiko falta ohiko arazoa izaten da. Kontsolak eta sistema teknikoa zaharkituta egoten dira batzuetan, baina, hala ere, teknikariak egon ohi dira.

Urrutiko edo onlineko interpretazioa interprete autonomoen eguneroko errealitatearen parte bihurtu da, eta interprete gehienek egiten dute gutxienez interpretazio-lanen laurdenean. Kasu honetan ere teknikariak egon ohi dira. Grabazio horiek batzuetan jartzen dira interneten, baina ez dirudi joera hori orokortua dagoenik. Edonola ere, interprete autonomoei, oro har, ez zaie baimena eskatzen grabazioa sarean jartzeko.

Interprete gehienek normalean ez dute esan ostekoa egin behar izaten aldiberekorako azpiegitura falta delako, baina egin izan dutenean, egoera desatseginak bizi izan dituzte inoiz.

Tarifei dagokienez, galdetegiari erantzun dioten interprete guztiek uste dut arazo-iturri direla. Ildo horretan, interpreteen erdiek aitortu dute tarifak merkatu behar izan dituztela inoiz. Dena den, aipatzekoa da oharretan interprete batek baino gehiago adierazi duela tarifak merkatu ez dituen arren, lanak galdu izan dituela, hain zuzen ere, tarifak ez merkatzeagatik. Oro har, galdetegiari erantzun dioten interpreteek lankideen tarifak ezagutzen dituzte, eta tarifa berdinak dituzte aurrez aurreko eta urrutiko lanetarako.

Emaitei erreparatuta, ez dirudi une honetan euskal merkatuan interprete falta dagoenik: normalean interpreteek ez dute beste norbait eskuragarri egongo izan balitz hartuko ez luketen lan bat hartu behar, eta gutxitan egin behar dituzte bi lan egun berean. Horrenbestez, ez dute gehiegizko lan-karga dutelako sentsaziorik, eta horrek ez die ez osasun fisikoan, ez osasun metalean eragiten. Halaber, ezohikoa dirudi kabinan interprete bakarra egotea egokiena bi interprete egotea litzatekeenean.

Hizkuntza-norabideari erreparatuta, interprete autonomoen erantzunek erakusten dute ohikoa dela interpretazio-lana norabide bietan egitea; hau da, euskaratik erdarara eta erdaratik euskarara. Gaztelaniarekin, bereziki, nahiko maiz gertatzen da. Gaztelania alde batera utzita, ingelesa eta frantsesa dira euskararekin batera gehien erabiltzen diren atzerriko hizkuntzak. Hala ere, alemana, italiara, katalana eta portugesa ere aipatu dira.

Dokumentazioa aurretiaz ez jasotzea arazo-iturri handia da interprete autonomo guztientzat. Jasotzen dutenean, normalean gutxienez egun bat lehenago jasotzen dute, baina maiz ez dute dokumentu bakar bat ere jasotzen. Denbora nahikoa badute, gehienek itzultzaile automatikoaren bidez itzultzen dituzte dokumentuok. Ildo horretan, aipatzekoa da oso gutxitan jasotzen dituztela dokumentuak paperean, baina, jasotzekotan, errekonozimendu optikoko sistemak erabiltzen dituzte galdetegiari erantzun dioten interpreteen erdiek baino gehiagok, testuak digitalizatu eta automatikoki itzuli ahal izateko.

## Hirugarrenen konturako interpreteak

Galdetegi honi hainbat eta hainbat erakundetako interpreteek erantzun diote (elkarteak, udalak, Batzar Nagusiak, Osakidetza, EHU, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Legebiltzarra, Nafarroako Parlamentua...). Beren lan-testuinguruak eta -baldintzak oso ezberdinak dira, eta hori agerian geratu da lanpostuen izenaz eta kategoriaz galdetuta; izan ere, askotariko erantzunak bildu dira: batzuk itzultzaileak dira, batzuk interpreteak, gehienak itzultzaile-interpreteak, baina antolakuntzako eta euskarako teknikariak ere badaude, eta baita beste batzuk ere. Hori bai, gehienek kasuan, interpretazio-lanak beren zereginen artean daude jasota. Lanpostuaren kategoriari buruzko galderari ez diote interprete guztiek erantzun, baina erantzun dutenen artean agerikoa da aniztasuna: A1, A2 edo B kategorietako lanpostuak aipatu dira.

Hirugarrenen kontura lan egiten duten interprete gehienek ez daude bakarrik beren lanpostuetan: interpreteak diren beste lankide batzuk daukate. Erantzun dutenen artean, 2-3 interpreteko taldeak izaten dira ohikoenak, eta interprete kopuru horri egokia deritzote dagoen lan-bolumenari erreparatuta. Jasotako erantzunen arabera, interprete gehienek prestakuntza egokia daukate, baina aipatzeko modukoa da galdetegiari erantzun dioten interpreteen % 37k esan duela lankideren batek ez duela prestakuntza nahikorik.

Beren lan-baldintzez galdetuta, hirugarrenen konturako interprete gehienek uste dute egokiak edo onak direla. Interpretazio-saioetan teknikariak egon ohi dira, nahiz eta kasu batzuetan saio mota zehatz batzuetan bakarrik gertatzen den hori. Normalean ez dute egunean 2 saio edo gehiago egin beharrik izaten, baina badago egoera hori maiz edo oso maiz bizi duenik ere. Beraz, zentzu horretan ere aniztasuna dago.

Azpiegiturari dagokionez, interprete gehienek uste dute egokia edo ona dela. Gehienek kabinetan egiten dute lan, baina badaude interpretazio-lana aparteko geletan egiten duten interprete batzuk ere. Aparteko geletan aritzen direnen artean, erdiek uste dute gela horrek duintasunez lan egiteko gutxieneko baldintzak betetzen dituela, baina beste erdiek ez. Hala ere, normalean interpreteak bakarrik egoten dira gela horretan, eta irudi proiektatuak ikusteko aukera izaten dute.

Kabinetan lan egiten dutenen artean, gehienek erantzun dute kabina horiek behar bezala intsonorizatuta daudela, baina ez da txikia kabinen intsonorizazioaz kezu den ehuneko: zehazki, galdetegiari erantzun dioten hirugarrenen konturako interpreteen % 40k erantzun du kabinak ez daudela behar bezala intsonorizatuta. Antzeko zerbait gertatzen da kabinen irisgarritasunarekin ere: gehienek erantzun dute irisgarriak direla, baina % 30 inguruk ezetz erantzun du. Kontuan hartzeak dira ehuneko horiek. Komunak, oro har, gertu egoten dira eta konfort termikoa egokia da.

Hirugarrenen konturako interpreteek normalean ez dute urrutiko interpretaziorik egiten (batzuek pandemia garaian egin zuten bakarrik), interprete autonomoek ez bezala. Orokorrean, grabazioak ez dira interneten jartzen, baina % 33k erantzun du sarean eskuragarri jartzen direla. Ehuneko hori ere esanguratsua da. Oro har, ez zaie horretarako baimenik eskatu.

Gainera, normalean ez dute esan ostekoa egin beharrik izaten, eta beraz, gutxitan bizi izan dituzte egoera desatseginak horregatik.

Jasotako erantzunen arabera, interpreteen erdiek inguruk nabaritu dute beren erakundearen itzulpen, transkripzio edo interpretazio automatikoa ezartzeko interesa.

Hizkuntza-norabideari erreparatuta, hirugarrenen konturako interpreteek ez dute inoiz norabide bietan, hau da, euskaratik erdarara eta erdaratik euskarara lan egiten, eta, oro har, euskaratik gaztelaniara bakarrik egiten dute lan. Inoiz beste hizkuntza-konbinaketa batean lan egin behar izan duten galdetuta, ingelesa aipatu dute bi interpretek, baina oso modu anekdotikoan. Oharretan, interpreteetako batek gehitu du beste hizkuntza-konbinaketa batzuetarako kanpoko interpreteak kontratatzen dituztela.

Dokumentazioa aurretiaz ez jasotzea arazoa da hirugarrenen konturako interprete gehienentzat, baina ez guztientzat. Gehienetan, egunean bertan jasotzen dituzte dokumentuak, eta maiz ez dute dokumenturik jasotzen. Normalean itzuli egiten dituzte dokumentuok. Hala ere, akats bat dela medio, galdetegian ez zitzaien galdetu horretarako itzultzaile automatikoa erabiltzen duten. Edonola ere, interpreteetako batek berariaz adierazi du itzultzaile automatikoa erabiltzen dutela, eta dokumentuak egunean bertan jasotzen dituztenez normalean, pentsatzekoa da itzultzaile automatikoaren bidez egiten dituztela itzulpenak.

Dokumentuak gutxitan jasotzen dituzte bakarrik paperean, eta gehienek ez dute errekonozimendu optikoko sistemarik erabiltzen. Gehienek baliabideak dituzte azken orduan iristen diren dokumentuak kabinan prestatzeko, baina ez denek.

Galdetegiari erantzun dioten interpreteen erdiek baino gehiagok beren lan-ordutegietatik kanpo prestatu behar izaten dituzte interpretazio-saioak. Lan-ordutegitik kanpo orduak sartzen dituztenen erdiek erraztasunak dituzte gero ordu horiek hartzeko, baina beste erdiek ez.

Horrenbestez, agerian geratu da euskal interpreteen profilak, lan-baldintzak eta arazoak askotarikoak direla, eta kasuan kasuko neurriak hartu beharko lirakekeela arazo puntualei aurre egiteko. Dena den, badirudi dokumentuak, eta, batez ere, irakurri egingo direnak aurretiaz ez bidaltzeko joera dagoela, bai autonomoek eta bai hirugarrenen konturako interpreteek salatu dutenez. Hori arazo orokortua da, eta zuzenean eragin diezaioke interpretazio-lanaren kalitateari, batzuetan, besterik gabe, ezinezkoa delako abiadura handian irakurria izaten ari den euskarazko testu bat gaztelaniara aldi berean eta xehetasun guztiekin itzultzea.